

Ahopean

Joxean Agirre

Musukoa jantzita ibili naizen hila-bete luzeetan bakarka eta neure kolkorako aholpean hizketan aritzeko ohitura hartuz joan naiz, eta, gero, kentzen hasi naizelarik ere, ohartu naiz kalean barrena aholpean bakarrikzeta luzeak eginez ibiltzen naizela.

Ez dira kontu larriak izaten. Idatzi berri dudan esaldi luzeren bat izan ohi da, hobe-tuko dudalakoan, edo norbaiten kontra marmarrean joaten naiz edo balizko elkar-rrizketaren baterako neure burua presta-tzen, ezpainak mugituz nolanahi ere, bai-na nabarmendu gabe, oraingoz.

Lehen jendeak aholpean kantatuz edo txistua joaz ibiltzeko ohitura zuen. Kanta-tuz emakumeak gehiago, etxeko lanetan ari zirenean edo umeak eskolarako pres-tatzen kantaren bat kantatzeko joera bai-

tzuten, umoreko zeudenean behintzat. Gizonezkoek txistua jotzen zuten.

Guk bagenuen auzoan mutilzahar bat sega eta eskuarea bizkarrean hartuta lane-ra zihoanean edo lanetik zetorrenean, ga-raiko erreperitorioa, Sakabi edo Maltzeta-ren piezak esaterako, primeran jotzen zituen. Gero zahartuz joan ahala, trikitia utzi eta arrosarioa errezatzen hasi zen.

Neu txarra naiz txistuz piezak jotzen baina banuen urrutira dei egiteko txistu hots dotore bat, artzainek erabiltzen dute-naren tankerakoa, bi hortz berritu nitue-nean desagertu zitzaidana. Arteak eta sor-menak oinarri ahulak dituztela pentsatu nuen. Andoni Egaña bera ere, gogoan dut, hortzak berritzen hasi eta “s”ak eta “z”ak azpeitiarrek bezala ahoskatzen hasi zen. Ez dakit nola gainditu zuen arazoa.

Gaur egun bi gizaki mota gaude bakar-ka hitz eginez gabiltzanak. Askok mugiko-rraren osagarriren bat dute belarrian eta beren bizitza “irratiz emanez” doaz. Gure artean hegoamerikarrak izan ziren hasie-ra batean, hori da nire irudipena. Kanpo-ko hiri batean izan gara astebetetz eta han natiboak ere beren bizitza ahots goraz “irratiz emanez” igarotzen zirela ohartu nintzen goizeko lehen orduetan beren egitekoetara zihoazenean, nahiz eta arra-tserako nekatu eta isildu egiten ziren.

Aurki gure kaleak bakarrikzetailez beteta egongo dira. Batzuek, gehienak, munduari konektatuta joango dira eta be-ren bizitza kontatuko dute ingurukoen as-permenerako. Besteok aholpean hizketan jarraituko dugu eta aspertzekotan, geure buruak bakarrik aspertuko ditugu. •

Gustuko eragiletza

Xabier Izaga
Gonzalez

Badira gustuko ez ditugun gau-za batzuk, gertatuz gero, haien eragilea pertsona edo talde ja-kin bat izatea gustatuko litzai-gukeenak. Kalte egiten badigute, nahi dugun eragile horri ere kalte egin die-zaiotela, eta kalte egiten ez badigute ere, hari kalte egin diezaiotela. Horre-gatik erabiltzen dute batzuek gustuko baina balizko eragiletza benetakoa ba-litz bezala. Adibiderik ez da falta azke-naldion: Ortuzar eta bere «mozkorra borroka», Urkullu eta gaueko zurruta-Ertzaintza-ongieterriak...

Azkena, Iruñeko alkate Enrique Maya-rena, Txantrea Eztandako gazteek sare sozialetan zabaldu duten bideoa dela-eta, Iruñeko auzo horretan gune urdina zuriz margotzen ageri direna. Mayak gustura jakingo luke nork egin duen ekintza hori, ez du uste Txantreako au-zokide batek marrak egiten jarduten duenik, baina badaki EH Bilduk tentsioa sortzeko «ekinbidea» duela, eta badaki «gauza horien» atzean dagoela.

Ez dakit indar abertzale horrek zer esan duen eztabaida sortu duen gune urdinaren gainean; hala ere, haren

kontra agertu balitz, zer? Mayak lasai ederrean onartzen ditu horrekin pozik ez daudenak. Baina ez ditu aintzat har-tzen. Nafarroako Arartekoak begi onez ikusi zuen hainbat auzokidek eskatu zuten eztabaida prozesua, baina Ma-yak –eta Ortuzarrek eta Urkulluk...– ezin du eraman aginteak xedatzen due-na zalantzan jartzea, eta gustuko eragi-lea tiraderatik atera eta demokraziaren aurka jokatzea egozten dio.

Eta demokrazia, denok dakigunez, eztabaida saihestu eta aginteak xeda-tzen duenari men egitea da. •